

ZOAZ NIRE MAHASTIRA

- "Maritxu nora zoaz"



1

Jesusek:

Zoaz nire mahastira,
baietz esaidazu.

Nik:

Eskerronez ta pozik
Jesus, prest naukazu.

Jesusek:

Azkenean saria
ugari daukazu.

Nik:

Maitasunez konpontzen
gara ni eta Zu.

2

Jesusek:

Mahastiak asko dira,
bakotxak berea.

Nik:

Maite zaitun batentzat
hau da aukerea!

Jesusek:

Zu ez zoaz bakarrik,
izan adorea!

Nik:

Nok garaitu holango
langile pare?

3

Jesusek:

Ez eizu ahaztu, lagun
behar zaitudana.

Nik:

Zuri zor deutsut, Jesus,
egin ahal dodana.

Jesusek:

Azkenean egingo
dogu erdibana.

Nik:

Zoragarria da gaur
Zuk hemen esana.

4

Jesusek:

Asko-gitxi ahal dozun
ez nago begira.

Nik:

Zure tratuak, Jesus,
ongarriak dira.

Jesusek:

Mahatsa helduta dago
zoaz azkar, tira.

Nik:

Bai, zeure izenean
banoa mahastira.

A. Martzel